


# Zenbaki zatikiarrak



# Zenbaki zatikiarrak

$$\frac{2}{3}$$

zenbakitzailea  
izendatzailea

# Izendatzailearen forma

**erdi** (\*biren):  $3/2 =$  **hiru erdi** (\*hiru biren)

**heren** (\*hiruren):  $4/3 =$  **lau heren** (\*lau hiruren)

**laurden** (\*lauren):  $5/4 =$  **bost laurden** (\*bost lauren)

Gainerako zenbaki zatikiarrak zenbaki kardinalari **-(r)en** atzizkia erantsiz sortzen dira:

- o Zenbaki kardinala bokalez bukatzen bada, **-ren**:

**sei** + **ren** = **seiren**

- o Kontsonantez bukatuz gero, **-en**:

**bost** + **en** = **bosten**

# Izendatzailearen forma

$$2/9 + 4/5 + 3/7 + 1/15 + 3/10 + 9/30 =$$

bi bederatziren gehi lau bosten gehi hiru zazpiren  
gehi hamabosten bat gehi hiru hamarren gehi  
bederatzi hogeita hamarren

# Izendatzailearen forma

$3/100 =$  hiru ehunen

$3/1000 =$  hiru milaren

$3/10.000 =$  hiru hamar milaren

$3/100.000 =$  hiru ehun milaren

$3/1.000.000 =$  hiru milioiren

$3/1.000.000.000 =$  hiru mila-milioiren (hiru milamilioiren)

$3/1.000.000.000.000 =$  hiru bilioiren

# Izendatzailea

Zenbakitzailea *bat* zenbakia denean, zenbaki hori kendu, eta izendatzailea mugatu singularrean deklina daiteke.



- Tartaren **laurden bat** jan dut.
- Tartaren **laurdena** jan dut.

# Izendatzailea

Adibide bat:

Argia 300.000 km/h-ko abiaduran hedatzen denez,  
segundo baten milaren batean gertatutako  
oszilazioak 300 kilometro inguruko uhin-luzera  
izango luke.

Argia 300.000 km/h-ko abiaduran hedatzen denez,  
segundo baten milarenean gertatutako oszilazioak  
300 kilometro inguruko uhin-luzera izango luke

# Izendatzailea

Zenbakitzailea batetik gorakoa denean, ostera, izendatzailea mugagabean deklinatu behar da:

- Izurriteak **populazioaren bi heren** hil zituen bi urtean, 1402-1404 bitartean.

(Izurriteak **populaziotik bi heren** hil zituen bi urtean, 1402-1404 bitartean.)

- \* Izurriteak **populazioaren bi herenak** hil zituen bi urtean, 1402-1404 bitartean.



- Sagar erdia / sagarraren erdia jan dut.



- Sei sagar neuzkan.



-Sagarren erdi**ak** jan ditut. (\* Sagarren **erdia** jan dut.)

-Sagarretatik erdi**ak** jan ditut. (Ikus EGLU-I, 127. or.)



- Orain, hiru sagar dauzkat.

Oharra : alde batera utzita, “erdi” hitzaren “erdigune” edo “bihotz” esanahia.

- Sagar erdiak jan ditut.

